


Etxegabeen ia erdia atzerritarrak dira

Gehienak gizon helduak dira, bigarren mailako ikasketak dituzte eta hilean batez beste 380 euroko sarrerak jasotzen dituzte

EUSTATen datuen arabera, ostatua eta janaria eskaintzen duten zentroetan etxerik gabeko 1.833 pertsonari ematen zaio arreta eta horien %48 atzerritarrak dira. Gainera, batez beste, 5 urte inguru daramatzate Espainian eta 2 urte baino pixka bat gehiago Euskal Autonomia Erkidegoan. Kontinenteen arabera, gehienak afrikarrak dira (%61), gero europarrak (%26) eta hirugarren postuan amerikarrak (%12). Zehatzago esanda, gehienak Marokokoak (%37), Aljeriakoak (%16), Errumaniakoak (%8) eta Boliviakoak (%3,4) dira.

Etixerik gabeko pertsonen %75 gizonak dira, gehienak 30 eta 45 urte bitartekoak. Alabaina, emakumeen eta atzerritarren agerpenak talde horren batez besteko adina murrizten du. Emakumeen %46ak 18 eta 29 urte bitartean du eta atzerritarren %86ak 45 urte baino gutxiago; espainiarrak, aldiz, %53 dira.

Etixerik gabeko pertsonen ehunekoak nazionalitatearen, adinaren eta sexuaren arabera



Iturria: EUSTAT

Etixerik gabeko pertsonen batez besteko hezkuntza-maila igo egin da atzerritarrei esker; izan ere, atzerritarren ehuneko handi batek (%20) goi mailako ikasketak ditu. Orotara, %57ak lehenengo edo bigarren etapako bigarren mailako ikasketak ditu; %23ak lehen mailako ikasketak ditu eta %14ak unibertsitateko ikasketak.

Talde honetan oso ohikoa da isolatuta egotea; %81ak ez dauka bikotekiderik eta %10ak bikotekidea izan arren ez da berarekin bizi. Seme-alabei dagokienez, gizonen %39ak eta emakumeen %68ak seme-alabaren bat dute. Seme-alabak dituzten emakumeen bi herenak horiekin bizi dira, baina soilik etxerik ez duten gizonen %9 daude egoera berean.

Ettxerik gabeko pertsonak sexuaren eta egungo egoeraren arabera (%)

	GIZONA	EMAKUMEA	GUZTIRA
GUZTIRA	100	100	100
EZKONGABEA	54,1	38,2	50,2
EZKONDUA	12,1	13,8	12,5
IZATEZKO BIKOTEA	4,6	12,1	6,5
ALARGUNA	0,7	7,2	2,3
LEGEZ BANANDUA	11,3	11,0	11,2
IZATEZKO BANANDUA	8,9	16,4	10,7
DIBORTZIATUA	8,1	1,3	6,4
ED/EE	0,2	.	0,1

Iturria: EUSTAT

Ettxerik gabeko gizonak aterpetxeetan bizi dira eta emakumeak pisuetan

Talde honetan, gizon eta emakumeen artean, ikus daitezkeen portaera ezberdinak agerian uzten dituen beste ezaugarri bat ostatua da. Gizonen %50 aterpetxeetan eta egoitzetan bizi da; emakumeen %55, aldiz, pisuetan. Bizitzeko modukoak ez diren tokietan (esparru publikoak eta ez-ohiko ostatuak esaterako) gizonak baino ez dira bizi (%14); emakumeak toki seguruagoetan bizi dira.

Ettxerik gabeko pertsonen %72,5ak ez dauka enplegurik; ildo horretan azpimarratzekoa da ettxerik gabeko emakumeen artean lautik batek lan egiten duela baina soilik gizonen %9 dagoela egoera berean.

Hileko batez besteko sarrerak 380 eurokoak dira. Sarrera gehienak Gizarteratzeko Gutxieneko Errentatik datoz (%17), sarreren %12 lanetik datoz eta kaleko jendeak emandako dohaintzetatik %10.

Ettxerik gabeko pertsonen %40ak ez du drogarik ez alkoholik kontsumitzen

Oro har, pertsonen %55ak uste du osasun ona edo oso ona duela. %54,7aren esanetan ez du sekula alkoholik kontsumitzen eta, gainera, %40ak drogarik ere ez. Haxixa edo marihuana dira gehien kontsumitzen diren drogak, %48ak kontsumitzen baititu.

Lurraldeka, Euskal Autonomia Erkidegoan ettxerik gabeko pertsonen ia erdiari Bizkaiko zentroetan eman zaie arreta, eta Bilbo da ettxerik gabeko pertsona kopuru handiena duen hiriburua. Araban etxegabekoen %27,7ari eman zaie arreta, eta Gipuzkoan ehuneko hori %26,5ekoa izan da.

Oharra: inkesta hau Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) laguntzarekin egin da.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01011 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Enrique Morán

Tel:+34-945-01 75 35 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es